

PELOTARIAK

Artea, jakituria, jolasa alkarren lagun aundiak dira. Giza semeak sortzetik artu ditu gai ta almen eder onek. Berezkoak dira, beraz, gizonaren ta gizadiaren bizitza artekotasunez, ondo, joan al izan dedin. Almen onek giza-diari emon eutsezanak, ondo, orniduta itzi eban, bizitz eder bat zuzentasunez ta alaitasunez egin al izan egian.

Gure erriaren gauz bi aitatuko ditugu lantxo onetan, gure pelotariak eta euren izkunta ederra.

Pelotarien arteko erritarra naz. Ta suberte onegaz ez naz lotsatuten, poztu egiten naz. Jaiotzaz, auzoan bertan, ezagutu izan nebazan gizandi izan diran zesta puntako pelotariak Marzelino Bereziartua, Gonzalo Larruskain, Segundo Zelaia, Txutxo Larrainaga ta abar... Gizon oneik euren gazte aroan, pelota kultura bidez, Euskalerrria agertu eben munduan zear: Kuban, Mejikon, Txinan, Italian, Ipar Ameriketara eta abar. Gizon oneik ondo goralduta eben euren jatorria: munduko pelota-toki ospetsuenetan ibili zan ta dabil gure pelota-arte ta izkuntza zoragarria.

Biok dira jatorrak, biok dira ederrak. Pelota jolasaren bidez euskaldun gazteak Euskalerrriaren izena ta izana agertu zituen pelota-tokitik pelota-tokira munduan: Gizontasuna, egizalesuna, ta euskaldun askorekin batean, gure erriaren izateko zentzuna zabaldu eben lurraren egaletan.

Ori dala-ta, antxe dago munduaren egal askotan euskaldunaren izaera zentzunez ta gizontasunez oiñarrituta. Gaur egunean be, batean bestean, zentzun ederdun euzko pelotari asko dabil mundu zabalean. Zorionak euzko pelotari orrei, batetik zuen izana zaintzen dozuelako, bestetik zeuen sorterriak ondo merezi daualako bere nortasunaren izen ederra.

Nik, emen, aitatu nai neukena da Allustiar gazte jator bat. Bein baten, zesta-puntaz, nor-geiagoka egikeran nagusi urten ta telebistara croan ebena. Izarrak ortzian dizdiz egiten dau. Ta olako gazte eder baten izarrak ikustea, benetan zoragarria da, euskaldun pelotariaren giroa gogoratzea ederra dan legez.

Izar guztiak ez dira bardiñak. batzuk aundiagoak ta beste batzuk txikiagoak ta bakoitzak emoten dau bere almenaren eran argitasuna, ta giza semeak be alantze dira, bakoitzak artu ta landu dituan almenen eran, argi egiten dabe munduaren aurrean. Gure Iñakik, emen ikusiko dogunez, almen ederrak artu izan ditu ta Allustiar jator bateri dagokion eran, onartu ta landu ditu, sortzetz artu izan dituan almen bikain orreik.

Au ez diñot neurez bakarrik, beste askoren eritxi ederra, bardiña izan da ta Euzkitzek bere egia autortu nai ba dau, olantxe egon zan gozatsu, barrez barrez, pozik entzuten. Izan be euskeraren jakituri, berezitasun ta edertasunak munduko elerti-zale jakintsuak arritula itzi izan ditu beti.

Ta ona emen, pelotari mutil gaztea Bizkaierazko izkuntzan literatur onenaren antzera, ezere bildurrik gabe, gaztedi guztiaren eredu bikain jarteko eran ikusi genduan. Izkuntza akats barik josi eban, berbea aozkatu euskal sen gozoenagaz, ta euskera, bere ederra, izlari edo idazlari prestu batek egin leiken era ederrekoa.

PAULIN



OTO TA POTOTO

Oto baserritarra baño kale-umea geiago zan.

Kele ertzean zuten etxea.

Etxea, edo...

Ermita batean bizi ziran.

Ermitak baeban etxe-bizitatxo bat eta antxe jaio eta azi zitzaigun gure Oto jauna.

Oto'ren aita Bartolo zan ermita orren zaintzaille.

Santuak bazuan kutxa txiki bat bere irudiakin, eta ura artuta, erririk erri ibilli oi zan Santuarentzat dirua biltzen... -Santuarentzat? Bai, bai... Leku ederrean zegok...! Santuak ez dik jaten! Alan diardu Bartolo'ren aurrean, auzoko Pantaleon'ek.

Baña, gauz orretan oker ebillen Pantaleon: Bartolo zintzoa zan eta ermitak baebazan beure gastuak he... Tarteka txakur aundiren bat artuko ebala, txikito bat erateko?

Ori be Ieikiena da. Ez goaz ukatzera; bañan. Pantaleon oker ebillen.